

## **BEZEROEN SEGMENTAZIOA**

Gure jatetxearen merkatu eremua Bilbo eta Bilbo handia eskualdea izango da. Gainera gure jatetxea, ingurumenaren babesari eta lan merkatutik baztertuta geratu diren pertsonen egoera kezkatzen eta arduratzen zaienentzat egongo da zuzenduta, hau da, ekologiarekin bat egiten dutenekin. Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako Euskadiko herritarren Ingurumenarekiko jarrerak 2017 txostenaren datuen arabera, lehen aldiz, Euskadiko herritarren % 100ek uste du ingurumenaren babesa garrantzitsua dela. Zehazki, txostenaren arabera, % 73k uste du oso gai garrantzitsua dela, eta % 27k uste du nahiko garrantzitsua dela. Beraz, edozein adineko bezeroak espero ditugu baina prezioak merkeak ez direnez, batez ere 28-50 adin tarteko bezeroak izango ditugula uste dugu, diru sarrera maila ertaina dutenentzat hain zuzen ere. Gainera, ingurumenaren egoera larriagoa denez, eta gure inguruan bere eragina geroz eta nabariagoa denez, bezero talde honen joera handitzearena izan daitekelakoan gaude. Beste alde batetik, euskal herritarren % 75ek erabaki dute haien elikaduran produktu ekologikoen kontsumo handitzea.